EUSKADI lagunkoia
Bizitzaz betetako bidea
Un camino, mucha vida

XUXURLAK


Gizarte eta osasun zerbitzuak


Gizarte eta komunitate egitura


Errespetua eta inklusioa


Komunikazioa eta informazioa

XUXURLAK. LGTBIQA+ adinekoentzako topagunea

Xuxurlak LGTBIQA+ adineko pertsonentzako topagune, entzuteko eta elkarri indarra emateko gune komunitarioa da, Gasteizko Udalak sustatua BIZAN zerbitzuaren bidez.

Ekimen hau tokiko elkarte-sareak egindako deiari erantzuteko sortu zen. Izan ere, Gasteizen, tamaina ertaineko hiri batean, kolektiboko adineko pertsona askok nahi gabeko bakardadea, isolamendua eta zaurgarritasun egoerak bizi dituzte. Gainera, tokiko elkarte-sareak ez du biztanleriaren segmentu honi berariaz zuzendutako jarduerarik edo espaziorik eskaintzen. Horren aurrean, Xuxurlak-ek elkartzeko, harremanak sendotzeko eta laguntza-sareak eraikitzeko gune seguru eta hurbila eskaintzen du.

Xuxurlak-ek diskriminaziorik gabeko eta benetan segurua den espazio baten beharrari erantzuten dio. Bertan, adineko pertsonek ez dute beren segurtasunaren eta ikusgarritasunaren artean aukeratu beharrik, ezta adinean aurrera egin ahala beren nortasuna ezkutatzera edo berriro armairura itzultzera behartuta sentitu ere.

Egitasmoa LGTBIQA+ kolektiboko adineko pertsonei zuzendutako hileroko topaketen bidez garatzen da. Saio horiek dinamizazio soziohezitzailean aditua den profesional batek koordinatzen ditu, parte-hartzea, entzute aktiboa, esperientzien trukea eta elkarren arteko babesa sustatuz.

Saio hauetan gertutasunean, konfiantzan eta elkarrekiko ulermenean oinarritutako giroa sortzen da. Horri esker, parte-hartzaileek beren bizi-ibilbideak partekatu, urte luzez jasandako jazarpenaren eta isiltasunaren ondoriozko zauri emozionalak landu, zahartzaroari lotutako kezkak jorratu eta elkarren arteko laguntza-sareak ehundu ditzakete.

Elkarrizketa-talde hutsa baino askoz gehiago da Xuxurlak. Autodeterminaziorako espazioa da, non LGTBIQA+ adineko pertsonak beren bizi-proiektuen protagonista eta eragile aktibo gisa aitortzen diren, eta komunitatearen parte ikusgarri eta baliotsu gisa parte hartzeko aukera duten.

Praktikaren funtzionamendua eta jarraitutasuna etengabeko eta koordinatutako lanaren bidez bermatzen dira, bi figura nagusiren arteko elkarlanari esker:

1. Pertsona dinamizatzaile aditu bat, LGTBIQA+ errealitatearen inguruko ezagutza espezializatua eta ikuspegi soziohezitzailea eskaintzen dituena. Haren ardura da talde-dinamikak gidatzea, elkarrizketa eta hausnarketa sustatzea, eta saioetan parte-hartze aktiboa errazteko behar diren tresnak eta metodologiak erabiltzea.

2. BIZAN zentroko arduradun den pertsona bat, saioak egiten diren zentroaren eta taldearen arteko lotura nagusia dena:
    a. Hurbileko erreferentea eta erakundearekiko lotura: Saio guztietan parte hartzen du, taldeko kide baten moduan. Konfiantzazko pertsona da, eta parte-hartzaileen beharrak, iradokizunak eta proposamenak jasotzen ditu. Era berean, taldearen eta BIZANeko udal-taldearen arteko zubia da.
    b. Jarraipenaren eta jarraitutasunaren bermea: Prozesuaren etengabeko ebaluazioa egiten du, eta taldearen jarraipena bermatzen du dinamizatzailearen ausentziak edo aldaketak gertatuz gero ere.
    c. Kudeaketa operatiboa eta talde-kohesioa: WhatsApp taldea kudeatzen du, eta taldearen funtzionamendua ebaluatzen du, parte-hartzaileekin, dinamizatzailearekin eta udaleko talde teknikoarekin koordinatuta. Horrez gain, taldeak proposatutako jarduera osagarriak antolatzen eta programatzen ditu.
    d. Komunitatean eragina izatea: Bere inplikazioa ez da alderdi logistikoetara mugatzen. Espazio segurua sendotzen laguntzen du, eta taldean egiten den lanak saioetatik harago jarraipena eta eragina izan dezan bermatzen du.

1. Erakunde susatzaileak

BIZAN, Berdindu eta Aldarte Erakundea

2. Erakunde mota

Publikoa

3. Xede taldea

LGTBIQA+ adineko pertsonak (55 urtetik gorakoak), nahi gabeko bakardadea, ikusezintasuna edo beren identitatea ezkutatzeko arriskua bizi dutenak.

4. Lurralde eremua

Vitoria-Gasteiz (Araba)

5. Etiketak

LGTBIQA+ adineko pertsonak, Espazio segurua, nahi gabeko bakardadea, zahartze aktiboa, adinekoekin lagunkoia den hiria, memoria historikoa, adineko pertsonen arteko aniztasuna.

6. Helburuak

Helburu orokorra: LGTBIQA+ adineko pertsonentzat topagune seguru, komunitario eta lagunkoi bat sendotzea Gasteizen, laguntza psikosoziala eta parte-hartzea sustatzeko, nahi gabeko bakardadea prebenitzeko, haien eskubideen aitortza indartzeko eta ingurune sozio-komunitarioan duintasunez, ikusgarritasunez eta bizitza betez zahartzeko eskubidea bermatzeko.

Helburu espezifikoak:

- LGTBIQA+fobiarik eta heteroarauetatik libre dagoen ingurunea sortzea: pertsonak beren sexu-orientazioaz, genero-identitateaz edo genero-adierazpenaz askatasunez hitz egiteko eta adierazteko moduko konfiantzazko eta babeseko espazioa eskaintzea, bazterketa edo estigmatizazioaren beldurrik gabe.
- Nahi gabeko bakardadea prebenitu eta horri aurre egitea: kolektiboko adineko pertsonen laguntza- eta adiskidetasun-sare informalak indartzea, isolamendu sozialaren aurrean komunitate-lotura sendoak sustatuz.
- Memoriak berreskuratu eta bizi-ibilbideak sendotzea: entzute aktiborako eta aitortza emozionalerako gunea eskaintzea, errepresioak eta eskubideen aldeko borrokak markatutako belaunaldi baten bizipenak partekatu eta berreraikitzeko, ongizate emozionala sustatuz.
- Parte-hartze aktiboa eta adinekoen protagonismoa sustatzea: LGTBIQA+ adineko pertsonak beren komunitateko eragile aktibo bihurtzea bultzatzea, haien ikusgarritasuna handitzeko, topagune berriak sortzeko eta kolektiboaren ahotsa espazio publiko eta instituzionaletara eramateko ekimenak sustatuz, ikuspegi paternalistak edo asistentzialistak saihestuta.
- Arreta soziosanitarioko sare publikoa eraldatzen laguntzea: BIZANen eta udaleko gizarte-zerbitzuetan sexu- eta genero-aniztasunaren kontzientziazioa eta ikusgarritasuna sustatzea, adineko pertsonen arretan heterosexualtasuna berez ematen duen ikuspegia gaindituz.

7. Metodologia

Xuxurlak-ek ikerketa soziosanitarioan baliozkotutako hainbat printzipio metodologiko txertatzen ditu:

- Ikuspegi intersekzionala eta genero-ikuspegia: adinak (adinkeria edo gerontofobia), sexu-orientazioak, genero-identitateak eta egoera sozioekonomikoak pertsonen bizitzetan duten eragina kontuan hartzen ditu, arreta berezia jarriz LBT emakumeengan eta adineko trans pertsonengan.
- Pertsonan Oinarritutako Arreta Eredua (POAE): pertsonaren bizi-ibilbidea eta historia jartzen ditu esku-hartzearen erdigunean, haren autodeterminazio-gaitasuna eta aldez aurretik adierazitako borondateak errespetatuz.
- Gutxiengo-estresaren eta erresilientziaren ikuspegia: urte luzez metatutako estigma eta diskriminazioaren ondorioak lantzen ditu, eta identitate afektibo-sexuala zahartzaroan modu osasungarri eta positiboan integratzeko komunitate-baliabideak eskaintzen ditu.

8. Elementu berritzaileak

Berrikuntza metodologikoa eta sormenezkoa lagunkoitasunaren ikuspegian: Xuxurlak-en berrikuntza nagusia adinekoentzako arreta-zerbitzu publikoetan neutraltasunaren mitoa zalantzan jartzean datza. Tradizionalki, "pertsona guztiak berdin artatzen ditugu" ideiak sexu- eta genero-aniztasuna ikusezin bihurtu du, eta adinekoentzako baliabideetan zisheterosexualtasuna arau gisa mantendu da. Horren ondorioz, pertsona askok bazterketa, auto-bazterketa edo berriro armairura itzultzeko beharra bizi izan dute. Xuxurlak-ek ikuspegi berritzailea proposatzen du, harremanetan oinarritutako komunitate-esku-hartze txiki baten bidez: formatu arina eta kostu ekonomiko txikikoa, baina gizarte-eragin handikoa. Horretarako, entzute aktibo sakona, berdinen arteko konplizitatea eta laguntza profesional arina uztartzen ditu (dinamizatzaile bat eta hilean behingo topaketa bat). Metodologia honek erakusten du benetako lagunkoitasuna ez dela azpiegitura handien menpekoa; pertsonen arteko harremanak sortu eta indartzeko espazioak nahita sustatzean dago gakoa.

Diseinuan, garapenean eta ebaluazioan parte-hartzea sustatzea: Adineko pertsonak jarduera pasiboen hartzaile huts gisa ulertzen dituzten eredu asistentzialisten aurrean, Xuxurlak-ek Pertsonan Oinarritutako Arreta Ereduan (POAE) eta bizi-proiektuaren kontzeptuan du oinarria. Ikuspegi horren arabera, adineko pertsonek beren bizi-proiektuaren eta harreman-guneen gaineko erabakiak hartzeko protagonismoa izan behar dute.
Horregatik, topaketa bakoitzeko edukia eta dinamikak hilean behin taldean parte hartzen duten 13 pertsonek berak diseinatzen dituzte. Bertan, zahartzaroari buruzko beharrak, kezkak eta nahiak modu irekian partekatzen dituzte, espazioaren etengabeko ebaluazioa egiten dute eta, aldi berean, tokiko politika publikoen eraldaketan eragile aktibo bihurtzen dira.

Beste testuinguru batzuetara transferitzeko eta erreplikatzeko gaitasuna: Xuxurlak hasieratik bertatik transferigarria eta eskalagarria den eredu gisa pentsatu da, udaleko gizarte-zerbitzuen sareetan nahiz Euskadi Lagunkoia bezalako lagunkoitasun-sareetan aplikatu ahal izateko. Baliabide ekonomiko gutxi behar dituenez eta dagoeneko martxan dauden ekipamendu sozio-komunitarioetan erraz txerta daitekeenez, hala nola BIZAN zentroetan, jubilatuen etxeetan edo kultura-etxeetan, tamaina desberdinetako udalerrietan garatzeko aukera ematen du.

Gainera, bere metodologia eskualde mailan zein lurralde mailan egokitu daiteke, aniztasuna, parte-hartzea eta komunitate-harremanak sustatuko dituzten topagune eta aniztasun-nodoak sortzeko erreferentzia erabilgarri bihurtuz.

9. Ebaluaketa eta emaitzak

Xuxurlak-en abiarazpena baloratzerakoan, garrantzitsua da ebaluazio- eta jarraipen-sistema nola antolatuta dagoen azpimarratzea. Proiektuaren ebaluazioa ikuspegi kualitatibo, parte-hartzaile eta jarraitu batetik egiten da, Pertsonan Oinarritutako Arreta Ereduarekin (POAE) bat etorriz. Balorazioa ez da parte-hartzaileen kopurua zenbatzera mugatzen; aitzitik, pertsonengan duen eragina, parte-hartzaileen bizipenen bilakaera eta eraldaketa, eta egitasmoak sare soziosanitario publikoan duen eragina ere aztertzen ditu.

Xuxurlak-en lehen ibilbidearen ebaluazio osoa egiteko, taldean parte hartu duten profesionalen iritziak eta taldeko kideen beraren bizipenak eta esperientziak hartu dira kontuan:

- Gizarte- eta emozio-eraginaren adierazle kualitatiboak:
    - Segurtasun emozionalaren eta konfiantzaren maila: Parte-hartzaile batzuek adierazi dute espazioa "ingurune seguru" gisa bizi dutela, non beren nortasuna askatasunez adieraz dezaketen, LGTBIQA+fobiaren beldurrik gabe eta beren identitatea etengabe justifikatu edo berreraiki behar izan gabe.
    - Nahi ez den bakardadearen murrizketa: Bai BIZANen egiten diren hileko saioetan, bai gainerako denboran komunikazio-kanalen bidez (WhatsApp) izandako harremanetan, ikusi da parte-hartzaileen artean adiskidetasun-harremanak sortu direla hileko topaketa-esparrutik harago. Xuxurlaken sortutako loturek balorazio positiboa egiteko aukera ematen dute, taldearen bidez eratutako laguntza-sare informalak, adiskidetasunak eta "aukeratutako familiak" indartu direlako.
    - Sendatze eta berreraikuntza biografikoa: Taldean ohikoa izan da jasandako errepresioaren ondorioz "belaunaldi-erreparazioaren" beharra adierazten duen diskurtsoa. Alde horretatik, lehen urratsak eman dira urte luzez metatutako estigmari eta ikusezintasunari aurre egiteko, eta horrek nolabaiteko arintze emozionala ekarri du.
    - Autodeterminazio-gaitasuna: Taldearen metodologiak parte-hartzaileen esku utzi du landu beharreko gaiak, dinamikak, hobekuntza-proposamenak eta garatu beharreko ekintzak aukeratzea, taldearen garapenean erabakitzeko eta eragiteko duten gaitasuna sustatuz.

- Adierazle kuantitatiboak eta prozesu-adierazleak:
    - Parte-hartzearen eta sendotzearen maila: Hileko saioetan parte-hartze eta jarraitutasun maila egonkorra erregistratu da. Hasierako taldea 13 erabiltzailek osatu dute, eta 2026ko urtarriletik uztailera bitartean saio bakoitzean batez beste 7 pertsonak parte hartu dute.

- Zerbitzuaren jarraitutasuna: Dinamizatzailearen laguntzarekin guztira 10 topaketa egin dira. Horietatik, 7 ohiko topaketak izan dira 2026ko urtarriletik uztailera bitartean, eta beste 3 ezohiko saio 2026ko ekainean antolatu dira LGTBIQA+ Harrotasunaren inguruan.
- Erakartzeko eta bideratzeko gaitasuna: BIZAN Sarearen eta bertako profesionalen laguntza izan da; langile guztiek jardueraren berri izan dute interesa zuten pertsonak taldera bideratu ahal izateko. Bai udal-baliabideetan bai LGTBIQ+ elkarte-sarean egindako zabalkunde zeharkakoari esker, taldearen jarduera-aldi osoan zehar pertsona berriak etengabe batu dira.

- Ebaluazio-mekanismoak eta -tresnak:

  - Parte-hartze bidezko kontraste-guneak: Saio guztietan eztabaida irekiak egin dira parte-hartzaileekin, haien iritziak eta ekarpenak jasotzeko eta programa sortzen diren behar berrietara egokitzeko. Aurretik aipatutako autodeterminazio-printzipioari jarraituz, taldeak etengabeko autoebaluazio-prozesua garatzen du.
  - Urteko memoria kualitatiboak: Xuxurlaken arduradun den BIZANeko koordinatzaileak urtero bere zerbitzuaren txostena egiten du, talde honen balorazioa ere barne hartuta. Horretarako, taldeko dinamizatzailearen feedbacka, parte-hartzaileen iritzi eta bizipenak, eta adinekoen arloko bere irizpide profesionala baliatzen ditu.

- Helburuen lorpena eta lortutako emaitzak:

  - Topaketa-espazio aitzindari baten sendotzea: Adineko 13 LGTBIQA+ pertsonaz osatutako talde egonkor bat sortu eta mantentzea lortu da. Taldea hilero biltzen da udal-sarearen baitan, intimitatea, konfiantza eta elkarrekiko errespetua oinarri dituen testuinguru batean.
  - Gizarte-isolamenduaren haustura: Espazioak elkarren arteko laguntza-sareak ehuntzeko balio izan du, saio formaletatik harago ere iraun dutenak. Horrela, zuzenean eragin da nahi ez den bakardadearen murrizketan, bereziki bakarrik bizi diren eta familia-laguntza tradizionalik ez duten pertsonen artean.
  - BIZANen ikusgarritasuna eta eraldaketa: Xuxurlakek agerian utzi du "hemen pertsona guztiak berdin artatzen ditugu" baieztapena ez dela nahikoa aniztasun sexo-generikoari erantzuteko. Horren ondorioz, adinekoentzako zentroen sare publikoak errealitate horren aitortzan aurrera egin du, eta bere zerbitzuetan cisheterosexualtasunaren presuntzioa gainditzeko lehen urratsak eman ditu.
  - Eraginkortasuna eta gizarte-errentagarritasun handia: Egiaztatu da komunitatean eragin handiko esku-hartzeak garatzeko ez direla beharrezkoak baliabide ekonomiko handiak. Borondate politikoa, espazio seguru bat eta entzute aktibo profesionala nahikoak izan dira emaitza esanguratsuak lortzeko (dinamizatzaile bat eta hilean behingo topaketa bat oinarri hartuta).